Urte «biribile» Bizkaian

Sagar uzta itzelari esker, Bizkaiko sagardotegiek iazko produkzioa bikoiztea lortu dute aurten, guztia bertako sagarrarekin

ESKUBAN

Aurtengo sagar uzta bikainak eragin zuzena izan du Bizkaiko sagardotegietan eta, iaz baino dezente konparatu, ekoizpena gehien hazi den hemeretzi da, 250.000 litrotik bikoitza egin baitu ionkoa.

Aitor Intxaurraga da Bizkaiko Sagardogileen Elkarteko lehendakaria eta berak ere ez du gogoratzen horrenbeste sagar bildu den urterik. «Guk zu urte daramatzagu sagardoa egiten eta sekula ez dugu aurtengoa bezalako sagar uztarik ezagutu. Hemen inguruko basermatzek ere gauza berbera diote, aspaldian ez dutela ezagutu horrelako sagar pilarik. Ikusgarria izan da».

Kalitate altetik ere bilduriako sagarra «oso ona» izan dela dio Intxaurragak. «Irailean euri asko egin zuelako kosta parteon eta abuztuko lehortearengatik agur bat ozkia ustorren alea hazi egin delako. Urrian ere oso egualdi ona izan genuen eta, alde horretatik, urte biribila izan dugu», nabarmendu du elkarteko lehendakariak.

Aparteko uzta honekin ez dute inongo arazorik izan bertako sagarrarekin upelak betetzeko. «Guk beti Bizkaiko sagarra erabiltzen dugu eta aurten soberan izan dugu. Bai sagardoa egiteko, baita sagar zukua egiteko ere. Horretaz aparte, Gipuzkoara ere dezente saldu dugu», esan du Aitor Intxaurragak.

Bizkaian sagardoa ekoizten duten hamar sagardotegietarik bosteek izango dute aurten jatorri izendapeneko zigilua: Markinako Aupe, Gatikako Eguskiza eta Etxebarria, Ginaburragako Laneko Kooperatiba eta Zornotzako Uxarte. Guztiek Busko Labeleko sagardoa egiten zuten eta iaz, zigilu hori desagertu zenean, Jatorri Izendapenaren bidea hartu zuten, beste 40 sagardotegirekin batera.

Intxaurragaren iritzitik, Jatorri Izendapena bertako sagarrarekin ekoizitako sagardoa bultzatzeko tresna egokia izan daiteke. «Guk Bizkaian beti erabili dugu bertako sagarra, baina Euskal Herri mailan bertako sagarra bultzatzeko balio izango du. Nafarroa eta Ipar Euskal Herria ere sartzen badira».

Dagoeneko, botilaratzen

Gipuzkoan gertatu den antzera, Bizkaian ere sagardoaren irakinaldiak nahiko azkar joan dira eta dagoeneko botilaratzen ere hasi dira. «Aurten oso ondo joan dira fermentazioak eta lehenbizi egindako sagardoak dagoeneko botilaratzen hasi gara Laneko kooperatiban. Gainontzekoek ere amaituta dute fermentazio alkoholikoa eta bigarrena edo malolaktikoa ere amaitzen ari dira».

Alkohol kopuruari dagokionez, aurreko urteetakoaren antzekoa izango duela uste du Intxaurragak, azukre maila berdintsua izan duelako eta, ondorioz, alkohola ere maila berean mantenduko delako.

Bizkaian sagardoa ekoizten duten upategiak hamar baino gehiago diren arren, hirurak bakarrik egiten dute tonu denboraldia. Laneko Kooperatiban, adibidez, produkzio guztia botilaratu egiten dute. Horrela, aurten ere Zornotzako Uxarte sagardotegiari egokitu zaio denboraldiari hasiera ematea. Ekitaldia urtarrilaren 20an egingo da, astearekarekin.



Laneko kooperatiban sagardoa botilaratzen hasi dira dagoeneko, Aitor Intxaurragak adierazi duenez. *Aitor RAMIREZ | ARCHIVO PRENSA*

IKUSGARRIA

Aitor Intxaurraga da Bizkaiko Sagardogileen Elkarteko lehendakaria eta berak ere ez du gogoratzen hainbeste sagar bildu den urterik. «Guk zu urte daramatzagu sagardoa egiten eta inoiz ez dugu aurtengoa bezalako sagar uztarik ezagutu. Ikusgarria izan da».

JATORRI IZENDAPENA

Intxaurragaren iritzitik, Jatorri Izendapena bertako sagarrarekin ekoizitako sagardoa bultzatzeko tresna egokia izan daiteke. «Guk Bizkaian beti erabili dugu bertako sagarra, baina Euskal Herri mailan bertako sagarra bultzatzeko balio izango du».

Bizkaian, bizkaiko sagardoa

Bizkaiko sagardoaren alde egin, ekonomia zaitez

Zornotza
Luiko-Etxi Sagardoa
Juan Arnaldotxeta Arriola
Tel.: 94 610 91 78

Gatika
Etxebarria Sagardoa
Itxiar Etxebarria
Tel.: 94 674 20 10

Gatika
Eguskiza Sagardoa
Maribel Abajo
Tel.: 661 296 915

GinabURRAGA
Laneko Koop
Lasarbiai Sagardoa
Tel.: 94 684 20 26

Zornotza
Etxikoetxe Sagardoa
Arantxa Olganguren Zornoza
Tel.: 94 457 32 85

Abadiño-Zaldibar
Aupe Sagardoa
José Antonio Bilbao
Tel.: 94 616 82 85

Zornotza
Uxarte Sagardoa
José Antonio Zarraoa
Tel.: 94 630 88 15

Zornotza
Etxeniaga Sagardoa
Unai Bilbao
Tel.: 607 607 925

bizkaiko sagardogileak

www.bizkaikosagardoa.eus